

BALIO PROPOSAMENA



Hainbat faktoreengatik bereizten da gure jatetxea, sektoreko beste jatetxeengandik. Faktore nabarmena, jatetxearen **teknologia aurreratua** da. Teknologia honekin, janari eskaeren denbora murriztuko dugu eta gure bezeroen erosotasuna eta janarien eskaerak egiteko erraztasuna handiagoa izango da. Bezero gehienak gazteak izatea espero dugu, azkar, merke eta goxo jatea bilatzen dute eta hori da gure negozioak eskaintzen duena.



Gure jatetxearen **izena JAN TA GO!** izango da. Sektorearen jatetxeekin konparatuz, oso modernoa izango da, igogailuak izango dituelako janaria momentuan mahaietara eramateko. Teknologia berri honekin, gure jatetxean zerbitzariak ez dira beharrezkoak izango. Jatetxearen berrikuntza honek, elikagaietan eta teknologian interesa duten bezeroak erakartzeko erabiliko dugu hori baita gure balio erantsia.

Jatetxearen ordutegiari buruz, **guerdiko 12:00etatik, gaueko 00:00etara** egongo da irekita eta etxera eramateko zerbitzua ordu bat lehenago amaituko da, 23:00etan. Etxeko zerbitzua doakoa izango da, baldin eta eskatutako janari kopurua 20€ baino altuagoa da. Horrela ez bada, 7€ gehiago ordaindu beharko dira.



Hortaz, "fast food" jatetxe bat sortu arren, **kalitate handiko janaria** salduko dugu eta prezioak nahiko eskuragarriak eta lehiakorrak izango dira. Kartan aurki daitekeen janaria eskatzeaz aparte, beste aukera bat egongo da bezeroentzako. Egunero arratsaldeko 13:00-16:00 ordudun artean, **egungo menu** bat salgai jarriko dugu 15€ prezioa izango duena. Aukera hau astelehenetik ostiralera egongo da eta egun bakoitzean aldatuko dugu menuko janaria. Egungo menuak, lehen eta bigarren platerak, postrea, edaria eta ogia izango du.